

Energiaren urteko kontsumoa, instalazioak sortutako energiaren % 80aren berdina edo handiago dela berresten duen justifikazioa

4. PIZGARRI-PROGRAMA:

477/2021 Errege Dekretuan argitaratutakoari jarraikiz, 4. programari lotutako eskaera guztiek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eskaera-fasean sinatua, eta justifikazio-txostena ere bai, justifikazio-fasean, aplikatzekoa den justifikazio-dokumentazioarekin batera.

Kasu estandar hauetarako ez da beharrezkoa izango justifikazio-txostena justifikazio-fasean aurkeztea (baina bai, ordea, erantzukizunpeko adierazpena eskaera-fasean):

- Saretik isolatuta dauden instalazioak.
- Soberakinik gabe sareari konektatutako instalazioak
- Sareari konektatutako instalazioak, soberakinak izanik konpentsazioaren eraginpean daudenak.
- Bizitegi-sektoreko instalazio fotovoltaikoak, 2,63 kWp-ko potentzia edo potentzia txikiagoa dutenak.
- Bizitegi-sektoreko instalazio eolikoak, 3,69 kW-ko potentzia edo potentzia txikiagoa dutenak.

Instalazioari lotutako kontsumitzailearen edo kontsumitzaileen energiaren urteko kontsumoa, laguntzaren xede den instalazioak sortutako urteko energiaren % 80aren berdina edo handiago dela justifikatzen da kasu horietan. Lehen hiru kasuetan, sortutako energia guztia kontsumitzen da, eta azken bietan, berriz, espresuki salbuesten da ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuaren IIE.B eranskineko 3. atalean.

Urtean sortutako eta kontsumitutako energiaren zenbatespenari dagokionez, honako hauek hartu behar dira aintzat:

- **Urtean kontsumitutako energia** zenbatesteko, azken urteko horniduraren¹ benetako kontsumotik lortutako datuen erreferentzia erabiltzeko aukera izango da, elektrizitate-fakturetatik (edo dagokion merkaturatzailearen webgunetik) edo banatzailearen Hornidura Puntuen Informazio Sistemaren Excel artxibotik, edo datu horiek lortzeko eskuragarri dagoen beste edozein iturritatik abiatuta.
- Aldez aurreko kontsumorik ez badago edo datu horiek eskuragarri ez badaude, haren zenbatespena egin ahalko da, esaterako, instalatutako potentzian edo kontsumo estandarrean oinarrituta, eta, aurreikuspenen arabera, hurrengo urtean kontsumitzaileak ia seguru izango dituen kargak aintzat hartuta.
- Kontsumoa igoko dela aurreikusten bada (esaterako, ibilgailu elektrikoaren kargatze-puntua jartzea, eskari termikoen elektrifikazioa, etab.), iguera hori justifikatu beharko da.

¹ Autokontsumo-kolektiboen kasuan, hari lotutako horniduran guztien kontsumoen batura aurkeztuko da, CUPS Hornidura Puntuen Kode Unibertsalen arabera bereziak.

- Nolanahi ere, kontsumo-zenbatespena justifikatutzat joko da honako ratio hauen arabera².
- Nolanahi ere, beste datu batzuk erabiltzeko aukera izango da, baldin eta zenbatespenak ongi justifikatuta badaude.

URTEKO KONTSUMOAREN ZENBATESPENA	Unitatea	4. programa
Etxebizitza	kWh/kW _{kontratatua}	872 ³
Etorkizuneko ibilgailu elektrikoa	kWh/ut	1.630 ⁴
Etorkizuneko bero-eskariaren elektrifikazioa bero-ponparekin	kWh/etxebizitza	4.000 ⁵
Bero-ponpa duten aire girotuko ekipamenduak txertatzea	kWh/ut	180 ⁶

- Instalazioak **urtean sortutako energia** zenbatesteko, ospe handiko programak erabiliko dira, ahal dela. Europar Batasuneko JRC (Joint Research Centre) zentroak egindako PVGIS sarbide askeko softwarea erabiltzea gomendatzen da⁷. Zenbatespen hori justifikatutzat joko da baldin eta programa hori instalazioaren ezaugarri zehatzekin erabiltzen bada.

² Taulan aintzat hartu gabeko beste kontsumo batzuetarako arrazoizkoa izango da, halaber, beste iturri batzuetatik jasotako ratioak aintzat hartzea, hala nola Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua edo beste energia-agentzia autonomikoak edo gai bakoitzean espezializatutako elkarteak.

³Etxebizitza bakoitzeko elektrizitatearen urteko batez besteko kontsumoa 3.487 kWh eta kontratatutako batez besteko potentzia 4 kW izanik. Urteko kontsumo-balio hori bat dator Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak argitaratutako SPAHOUSEC I txostenean agertzen denarekin: <https://www.idae.es/informacion-y-publicaciones/estudios-informes-y-estadisticas>

⁴Urtean, batez beste, 10.000 km eta kilometro bakoitzeko 16,3 kWh-ko kontsumoa aintzat hartuz.

⁵ Urtean 12.000 kWh-ko bero-eskaria aintzat hartuz, eta batez beste, 3,0ko urtaroko batez besteko errendimendua.

⁶ Egunean batez beste 2 orduko funtzionamendua aintzat hartuz, batez beste kW 1eko potentziarekin, urtean 90 egunean.

⁷ https://re.jrc.ec.europa.eu/pvg_tools/es/#PVP

Erantzukizunpeko adierazpena, instalazioari lotutako kontsumitzailearen edo kontsumitzaileen energiaren urteko kontsumoa, instalazioak berak sortutako urteko energiaren % 80aren berdina edo handiagoa izateko zenbatespenari buruzkoa

..... jaunak/andreak
(nazionalitatea:....., IFZ/AIZ:), teknikari eskudun gisa jardunez honako titulazio honekin:, edoenpresa instalatzailea ordezkatzuz (IFZ:.....), azken hartzaile jaunak/andreak/sozietateak eskatuta, komunikazioetarako honako helbide hau duelarik:, Udalerria: PK:, Probintzia:....., Telefonoa:, helbide elektronikoa:

ADIERAZTEN DU

- Laguntzaren xede den instalazioa honako helbide honetan dago: (posta-helbide osoa/poligonoa eta lurzatia edo katastro-erreferentzia/UTM koordenatuak), eta hornidurako CUPS kode bat du (ez zaie aplikatzen instalazio bakanei eta hornidura berriei):
- Kontratutako hornidura-potentzia kW da (ez zaie aplikatzen instalazio isolatuei eta hornidura berriei).
- Autokontsumo-instalazio berriaren instalatutako potentzia kW da (edo kWp instalazio fotovoltaikoen kasuan).
- Instalazioari lotutako kontsumitzailearen edo kontsumitzaileen energiaren urteko kontsumoaren zenbatespena..... kWh da.
- Autokontsumo-instalazio berriak urtean sortuko duen energiaren zenbatespena kWh da, ⁸..... programaren arabera egindako kalkuluei jarraikiz.
- Kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek urtean energian egingo duen/duten kontsumoaren zenbatespenaren eta autokontsumo-instalazioak urtean sortuko duen energiaren arteko erlazioa % da.
- Horrenbestez, bete egiten da instalazioari lotutako kontsumitzailearen edo kontsumitzaileen energiaren urteko kontsumoa, instalazioak sortutako urteko energiaren % 80aren berdina edo handiagoa izango dela berresten duen aurreikuspena.

....., 202...(e)koaren (a).

Teknikari eskudunaren edo enpresa instalatzailearen sinadura:

..... jauna/andrea

Titulazioa.

IFZ:

⁸ Adierazi zer programarekin egin diren kalkuluak (PV GIS, eta abar).

Instalazioari lotutako kontsumitzailearen edo kontsumitzaileen energiaren urteko kontsumoa, instalazioak sortutako urteko energiaren % 80aren berdina edo handiagoa izango dela berresten duen aurreikuspenaren justifikazio-txostena.

1. Memoria egiten duen teknikariaren datuak

Izena:

Titulazioa:

IFZ:

Enpresa:

Enpresaren IFZ:

Helbidea:

Helbide elektronikoa:

Telefonoa:

2. Instalazioaren datuak

a	Kokalekua ⁹	
b	Kontsumitzaileak eta autokontsumoari lotutako CUPS kodeak ¹⁰	Kontsumitzailea 1: CUPS 1: <hr/> Kontsumitzailea 2: CUPS 2: <hr/> Kontsumitzailea 3: CUPS 3: <hr/> Kontsumitzailea 4: CUPS 4: <hr/> ----
c	Autokontsumoa sortzeko instalazioari lotutako kontsumitzaileek urtean energian egingo duten kontsumoaren zenbatespena (kWh) ¹¹	
d	Instalazio berriak urtean sortuko duen energiaren zenbatespena (kWh) ¹²	
e	Sorkuntza-instalazio berriaren potentzia instalatua (kWp)	
f	Puntako potentziarekiko zenbatetsitako ordu baliokideak (kWh/kWp)	

$$\% = \frac{\text{Urtean kontsumituko den energiaren zenbatespena (kWh)}}{\text{Urtean sortuko den energiaren zenbatespena (kWh)}} * 100 =$$

⁹Helbidea (kalea/udalerrria/PK/probintzia edo poligonoa/lurzatia/udalerrria/probintzia), eta katastro-erreferentzia edo UTM koordinatuak.

¹⁰ Kontsumitzaileak eta autokontsumoari lotutako kontsumitzaile bakoitzari dagokion CUPS kodea barne hartu behar dira.

¹¹ 3.1 atalaren justifikazio-kalkuluen arabera.

¹² 3.2 ataleko justifikazio-kalkuluen arabera.

3. Justifikazio-kalkuluak

3.1. Urtean kontsumituko den energiaren zenbatespena justifikatzeko kalkuluak.

(Txostenaren sinatzaileak barne hartu beharko ditu, urtean kontsumituko den energia zenbatesteko beharrezkoak izan diren kalkulu guztiak).

3.2. Urtean sortuko den energiaren zenbatespena justifikatzeko kalkuluak.

(Txostenaren sinatzaileak barne hartu beharko ditu, urtean sortuko den energia zenbatesteko beharrezkoak izan diren kalkulu guztiak).

....., 202...(e)koaren (a).

Teknikari eskudunaren edo enpresa instalatzailearen sinadura:

..... jauna/andrea

Titulazioa.

IFZ: